

KOSTUAK

Enpresarekin harremanetan jarri ondoren, honako hau eskaini digute:

Pultsera bakoitzak 2,45€-ko kostua dauka, 100 pultsera erosiz gero. Ondorioz, 245€ ordaindu beharko genituzke pultsera horien truke. Hala ere, honi guztiari, %21eko BEZ-a gehitu behar zaio eta orduan, kostu totala 296,45€-koa izango litzateke.

Bestalde, kontuan hartu beharra dago aplikazioa sortzeko beharko dugun dirua. Horretarako, aditu batek adierazi digun bezala, aplikazioak konplexutasun handirik ez duenez, programadore bat kontratatuko dugu, ordua 60€ oradainduz. Hala, aplikazioaren programazioa oso sinplea den horretan, 2-3 ordu besterik ez ditu beharko, eta beraz, 180€ ordainduko dizkiogu. Hortaz, aplikazioaren kostua 180€koa besterik ez da izango.

Horrez gain, pultsera bakoitzean arduinoak jarri behar dira, bluetooth-aren bidez telefonoarekin konektatu ahal izateko. Arduino bakoitzak 10€ balio ditu, eta beraz, 100 pultsera erosiko ditugunez, hasiera batean behintzat, 1000€ko kostua izango du.

Hori guztia kontuan izanik, gure produkturako beharko dugun diru kopurua 1656,45 izango da.

Kontuan hartu beharra dago, baita ere, ordenagailu baten beharra izango dugula guren webgunea sortu, mantendu eta aurrera eramateko. Baina nabarmentzekoa da horiek eskuratzeko hainbat baliabide ditugun eskura, eta beraz, ez dugula inolako kosturik izango.